

TXIRRITXOLA

Bakioko euskal aldizkaria - 1998ko garagarrila - 24. zenbakia

**UEMA. Euskera hutsean
bizi gura daben herriak**

**Argazki erreportaia:
Doniene Sua**

**ALKARRIZKETEAK:
Txetxu Ugaldegaz**

MOTUL

JULEN tailerra

Zerbitzu bizkorra

NEUMATIKOK
GAS-TUTULUAK
ORIOA ALDATZEA
BALAZTA ZAPATAK

Beharpen ederrak



ZERBITZU BIZKORRA:


- orioa aldatzea
- irazkina (filtroa) aldatzea
- gas-tutulua
- leungailuak
- neumatikoak
- burpilak orekatzea
- balazta zapatak
- direkzinoa doitzea
- mekanika arloa
- soldatze lanak
- motorea garbitzea (ur beroaz)

JULEN tailerra

Artalde, 8

48130 BAKIO

Tfno.-zkia.: 94 619 48 97



MOTUL

BERBAURREA

Udan sartuta gagoz. Udeagaz batera Landabarrenan behera jende-uriola bazterrak betean etorri jaku. Orain beste bizitasun eta itxura bat igarri leitekez herrian. Ezbardinak. Azaleko bizitasun eta itxurea, hiru hilabeteotan, baina. Azalekoak, bai! Jende-uriola horrek, ohi dan lez, gure herriagaz zerikusirik izaten ez daualako edo. Guraririk eza edota ezina, batek daki. Hor be, txakurrak ortozik.

Udagoiena hasi ta joan egingo da jende-uriol hori. Hurrengo urtera arte. Atzean lotuko dira hiru hilabeteok. Herriari, zoritxarrez, benetan aldeko ekarpen gitxi eta txikia eginda. Badakigu udatiarren artean euskaldun asko dagoana. Igarri ez arren. Euren artean herri hau benetan maite dabenak dagozana jakin badakigu be. Igarri ez arren. Betoz geurera gu ezagututen. Betoz geugaz bat egiten. Igarri egin daigun. Udako eguzki zuriak argituko ahal deusku etorkizuna!

TXIRRITXOLA

TXIRRITXOLA-24

1998ko garagarrila (hiruhilabetekaria)

ARGITARATZAILEA

Bakioko Euskera Batzordea

ZUZENBIDEA

Bakioko Kultura Etxea

Urkizaurralde, 28

48130 BAKIO

Tfno.-zkia: 94 619 40 01 / 619 33 69

Fax-zkia.: 94 619 31 18

ALE KOPURUA:

600 ale

LAGUNTZAILEA

Bakioko Udala

IRARKOLEA

Gráficas Gaubeka

Tfno.-zkia.: 94 625 02 74

Fax-zkia.: 94 625 52 54

48300 GERNIKA-LUMO

TXIRRITXOLA

Bakioko Euskera Batzordeak egindako aldizkaria


ZER-NON

GAIA

ORRIALDEA

Aurrealdea: Doniene Sua	1
Agurra	3
Berbetan: Felix Jauregizarregaz BFTren ganean	4
Eritxia	6
Zer deritxozu?: udako ligeak	7
Zer barri?:	
- 6. mailako en agurra	8
- Bakioko XII. Musika Astea	8
- Turismo Bulegoko barriak	9
- Esku pelota tailerra	10
- Bakioko etxeen toponimia	10
- udako euskera ikastaroa Bakion	11
Udako giroa: xabiroiak, hartzako bizilagunak	12
Zuhur ibili	13
Talde en txokoa:	
-Bakioko Abesbatza	14
-Alaitasuna Pilota Taldea	14
-Itxas-Alde	14
Berbetan: Gogoak Askatu taldea	15
Argazki erreportaiea: Doniene Sua	16
Gai berezia: UEMA	18
Birigarroa: Bizkaibus	20
Zaharrak barri	21
Euskerea: Bakioko euskerea-2	22
Berbetan: Txetxu Ugalde	24
Kultura leihoa:	
- Antxon Irustaren ipuina	26
- Bakioko liburutegiaren txokoa	27
- 97ko idaz-lehiaketaren ipuina	28
- Olerkia	28
- Ipuina: soinkien laniztea	29
- Olerkia	29
Danetarikoak:	
- Datozanak	30
- Barregaiak	30
- Ezetz jakin!	31
Atzera begira	32

TXIRRITXOLA aldizkariak ez dau artikuluetan idatzitako en esanik zein eritxirik beraren gan hartuten, artikuluegileak baino.



BAKIOKO UDALAK
diruz lagundutako aldizkaria

BAKIOKO FOOTBALL TALDEAREN ganean

Felix Jauregizarregaz txur-txurka



Felix Jauregizar, Bakioko Futbol Taldeko Lehendakaria: *“Nik uste dot analisi sakona egin behar dogula, zer egin dogun, zer gura dogun eta norantza joan behar dogun ikusteko”.*

Alkarrizketa egiteko orduan horren jakitun egon ez arren, hurrengo denboraldian Bakioko Futbol Taldea maila bat beheragon eukiko dogu, aurten apur bat makal ibili ostean; ganera, bagilaren amaieran taldeko lehen-dakaritza barrizteko hauteskundeak izan dira. Hori guztia dala eta, sasoi egokia begitandu jaku horren inguruko berbaldia eukiteko Felix Jauregizar Bakioko Kirol Taldeko lehendakariagaz. Berak azaldu deusku zeintzuk diran hurrengo urteari begirako asmoak eta futbol taldearen inguruan egin beharreko hausnarketa.

Momentu inportante batera ailegatu gara eta nik uste dot analisi sakona egin behar dogula, zer egin dogun, zer gura dogun eta norantza joan behar dogun ikusteko.

TX: Daborduko denboraldia amaitu da; esan TXIRRITXOLako irakurleei zelan lotu diran futbol talde biak eta zelan baloratzen dozuen aurton egindako beharra?

FJ: Nagusiak, preferente taldekoak, 15. postuan lotu dira; normalean postu horretan lotuz gero, ez da egoten bajatzeko problemarik, baina aurten 3. mailako Bizkaiko taldeak txarto ibili dira, eta horreek mailaz bajakeran, guri egiten deusku kalte, ezta? Orduan, horreek gure taldea arrastatu egiten dabe, eta, klaro, oraintxe momentuan oraindino gagoz bajatzeko arriskuan, eta datorren domekan jada jakingo dogu zein maila

eukiko dogun, lotzen garan edo bajatu egiten garan, ze hirugarren mailakoak oraindikarren promozinoa jokatzen



dabilz “Bigarren B”-ra igoteko eta domekan amaituko da; orduan, hemengo multzoko batek igotea lortzen badau, gu libratuko gara, hau da, preferentean lotuko gara. Orduan hor gagoz, horren begira.

TX: Gazteen taldeari jagokonez, zer esan leike?

FJ: Gazteek maila barria estreinatu dabe, pasa dan denboraldian bigarren mailatik lehenengo mailara igo eben eta nik uste dot oso denboraldi ona egin dabela, bederatzigarren postua lortu dabe, baina denboraldi erdi inguruan problema batzuk egon dira, lesioak, eta horretariko arazoak, gaixotasunak. Ganera, lehenengo taldeak be problemak euki dauz, eta, orduan, gazteen laguntzinoa behar izan dau eta hori igerri egin dabe; hori dala eta, hilabete bitan apur bat lotuta egon dira, baina nik uste dot amaiera oso ona euki dabela.

TX: Oraindikarren taldea non lotuko dan jakin ez arren, zeintzuk dira hurrengo urteari begira zehaztu dozuezan helburuak?

FJ: Bueno, nik uste dot ailegatu gara momentu inportante batera, ze zortzi urte

edo bederatzi urte dira taldea sortu zanetik, eta nik uste dot analisi sakon bat egin behar dogula, zer egin dogun, zer gura dogun eta apur bat lotu, ezta? Lasai lasai, aztertu orain arte egindakoa eta ikusi norantza joan behar dogun. Ze bederatzi urte horreetan aprobetxatu doguz hemen-txe egon diran gazteen maila guztiak, orain dala urte bi euki genduzan lau maila eta horreek izan dira orain dala zortzi, bederatzi urte hartu genduzanak. Dana dala, momentu honetara ailegata, gazteen talde bakarra daukagu eta horrek esan gura dau atzetik ez datorrela gazterik.

TX: Horregaz, zer esan gura dozu? Konformatu beharra dagola orain arte lortutakoagaz?

FJ: Uste dot herri edo klub gitxitan egingo zala hemen egin dan beharra, batez be kontuan hartuta Bakio zelango herri

Uste dot herri edo Klub gitxitan egingo zala hemen egin dan beharra, batez be Bakio zelango herri txikerra dan kontuan hartuta.

txikerra dan; horregaitik dinotsut aprobetxatu dogula egon dan guztia eta emoitzak oso onak izan dira. Talde nagusiak lehenengo urtean igoera lortu eban, geroago, lau urte pasata beste igoera bat eta orain momentuan preferenteko mailan gauzak apur bat gaxagoak dira, bai kirol aldetik, jokalaria honantza ekarteko, bai diru aldetik be. Herri txiki batentzat nahiko maila gogorra da. Esan gura deusut gazteen artean lortu diran emoitzak ezin hobek izan dirala;

alebinetan txapeldun lotu ziran Futbol 7n, infantiletan txapeldun lotu ziran, bai eta kadetetan eta jubeniletan be. Eta nik uste dot emoitz horreek denboraren porazuz erreflejatu egin behar dirala, hau da, ez danak, baina jokalaria horreek joan behar dabela noz edo noz goiko taldera.

Planteatu beharko dogu ea guk beti aurrean egon behar dogun edo ea apurka-apurka jendea sartzen dan.

TX: Akaso, Bakion ikusten da ez dabela salto hori emon, ezta?

FJ: Bai horixe, ez da emon, gure mutilek ez dabe emon preferenteko maila. Nik uste dot gaur egunean dagoan talde jubenilaren emoitzak hemendik urte bira ikusi behar dirala; aurten, lauk edo bostek urten dabe jubeniletatik eta bost horreetarik hiru olgetako moduan egongo dira. Pazientzia euki behar da, eta, ganera pentsatzen dot aukerak emon behar jakezala. Horregaitik dinot analisisa egiteko momentua ailegatu dala, ze badakigu ez dirana izango titularrak, badakigu entrenatzaileak beste batzuk ekarteko esango deuskuna. Baina horretan esku hartu behar dogu eta mutil horreek hor euki behar dira, lehenengo urtea olgatu barik pasatzen badabe be; eta apurka-apurka, minutuakaz, lantzen joan eta etorkizuna handik aztertu.

TX: Beste gai batera pasatuz, oraintsu amaitu barri da taldeko hauteskunde kanpainia; zelango balorazioa egin dozue prozesu horren inguruan?

FJ: Bueno, guk kanpainia hori atara behar izan dogu, ze lau urte pasatu dira eta orduan ikusi behar da ea inor dagoan segitzeko gogoagāz. Dana dala, ikusi dogu ezetz eta hori be planteatu beharko dogu, ea beti guk izan behar dogun aurrean egon behar dogunok edo ea apurka-apurka jendea sartzen doan giroan. Ez da erreza, nik uste dot igual guk ez dogula aukera lar emon, igual apur bat itxita egon gara, ez itxita, ze etorri

Futbolaren inguruan sortu dan mugimendua aztertzea ez da bape gauza sinplea.

dan guztiari atek zabaldu jakoz, baina... Gure buruan, akaso, beti egon dira emoitzak, maila igotzearena, eta uste dot beste gauza batzuk ikusi behar doguzala herri mailan eta jendea bultzatu gure giroan sartu daiten.

TX: Beste gai batera joz, Frantziako Nazinoarteko Futbol Txapelketa oraintxe daukagu eta argi igerri egiten da jendeak ez daukala beste gairik



ahotan; hori zer dala eta? Akaso eta betiko topikoa aitatzuz, futbola aitzakia dalako gure bizimodutik apur bat aldentzeko?

FJ: Bueno, ni gogoratzen naz hori lehen, Francoren denboran, esaten zala, hau da, futbolari indar handia emoten jakola beste gauza batzuk ahaztu eta jendea arduratu ez eiten arazo politiko-sozialakaz, baina denborak, antza, arazoia kendu deusku. Uste dot gaur egunean badagozala aukera asko beste gauza batzuk egiteko eta jendea lehen baino sartuago dago futboleant, batzuetan itsututa. Zergaitik? Futbolak beti euki dau indarra eta ganera telebistak, aldizkariak, egunkariak indar handia emon deutsoe, baina, argi dago jendea futbolagaz lotu egiten dana. Lehen

futbola herrien ordezkari zana, baina gaur egunean ezta hori be, ze talde gehienek kanpotarrak daukez; orduan futbolaren indar hori ezin da aztertu modu sinplean, baina futbolak zeozer dauka beste kirol batzuek ez daukena.

TX: Zuk aitatu dozun ikuskizunaz aparte, gaur egun, zoritxarrez, ikusten gabiliz futbolaren inguruan be bortizkeria itzela dagoala, Inglaterrako zaletuek istiluak eta txikizinoak sortu dabez, Alemaniakoek polizia bat koman itzi dabe... Zergaitik horrelako gerta-kizun tristeak futbolaren inguruan?

FJ: Nik uste dot jende gehienak futbola ihesbide modura hartzen dauala eta hortxe askatzen dabez euren nerbio guztiak. Beste gauza bat be ikusten dozu; Athletic aurten ez da txapeldun lotu, bigarren postuan baino, eta begitu kalean zenbat jende egon dan. Futbolagaitik? Edo jendeak arrazoi bat behar daualako kalera urtetako eta jaja egiteko? Ez dakit, futbola gauza berezia da eta analisi sakonak eginda be, futbolaren inguruan sortu dan mogimendu hori aztertzea ez da bape gauza sinplea.

TX: Amaitzeko, herriari zeozer aitatu gura zeunskio?

FJ: Ea Bakion jendea hasten dan apur bat futbolera parajetuten eta inplikaturen, ze gu ez gara izango betiko eta etorkizunean baten batek hartu beharko dau ardura hori. Dana dala, ardurak hartzeko gogo falta hori gauza orokorra izateaz aparte, nahiko garbi ikusten da, tristeza izan arren, gure gizartean jendea ez dagoala horrelakoetarako prest.

Ea Bakion jendea hasten dan apur bat futbolera parajetu eta horretan inplikaturen, ze gu ez gara izango betiko eta etorkizunean baten batek hartu beharko dau ardura hori.

Egia, erreten danz begiak.

OHARRA: Arlo honetara bialduko diran eritxiek izenpetuta egon behar dabe, izenpetzailearen izena eta telefono zenbakia emoteaz gan. Gehenez jota, 40 lerroko idazkiak onartuko doguz. Beste aldetik, ez dogu iraingarritzat jo daiken eritxirik argitaratuko, ez eta inoren izena edo irudiari kalte egin leikionik be.



IKASTOLEA ETA ESKOLA PUBLIKO EUSKALDUNA, BIAK BE BIAK ERAIKUNTZA NAZIONALERAKO BEHARREZKOAK

Ez da egia Eskola Publiko Euskaldunaren alde egoteko Ikastolen aurka egon behar dana. Badira, bagara, Euskal Herrian asko be asko arlo biak begi onez ikusi, onartu eta bultzatuten doguzanak. Ez da egia, Ikastolak "ghetto pribatuak" dirana. Egia da pribatuak dirana. Baina egia da, baita be, **Ikastolak Herri Ekimenak** sortuak eta sustatuak dirana. Herri Ekimenak UEU, AEK, **Euskaldunon Egunkaria**, **Euskal Herrian Euskaraz**, **Topagune**, **irati euskaldunak** eta **kooperatibak** diran lako erakunde pribatuak be sortuak diran lez. Ikastolak Herriak sortuak eta sustatuak dira. Euskal Herri osoan onarpen sozial zabal eta sakona dauke eta urteroko ibilbidean euren alde batuten diran ia 500.000 euskalzalaren baietak argi be argi izten dau hori.

Ikastolak **auzolanaren kulturalen** jaioak dira. Ikastolak partaidetza sozialean oinarrituta dagoz. Ikastolak gurasoen kooperatibak izankeran, gurasoak seme-alaben heziketan artean guztiz inplikaturik dagoz. Ikastolen eredu berezko eta autogestionarioa da. Gestioan eta proiektu pedagogikoan administrazioarengandik autonomoak dira. Ikastolak dira euskal gizarteak hezkuntza arloan emondako ekarpenik berezkoenak. Eredu berau hartu deuskue Britainiako eta Okzitaniako ikastolek, hau da, **DIWAN** eta **CALANDRETTA** diranek, hurrenez hurren. "Ikastolak, betidanik, ardatz nagusia izan dira herri honetan, herri mogimendu handia mobilizatuten dabelako, eta gaur egun, herri honetan sortu jakun auzolanik handienetarikoa da Ikastolen mogimendua. Honek adierazoten dau bizirik dagoan Herri baten gogozala". (Karme Aiestaran, HBko euskera arduraduna, EGIN, 98.06.08, 15. orr.)

Agiriko dan lez, hainbat arlotan **Ikastolak aurrelari** dira gure herrian. Euskerea eta euskeraz ikasteko beharrietatik harago doaz oraindik. Euskal gizarteagazko konpromiso sendoa hartu dabe, euskal gizarte bera hizkuntzaz eta senez euskaldundutekoa. Aor bada, publikatutako Ikastolak sortutako alkarlana eta konfederakundea. Aor, ELA eta LAB sindikatuak hezkuntza arloan aurrelari dan aurton izenpetutako lan baldintzen hitzarmen historikoa. Aor, Ikastolek Euskaldunon Egunkaria, AEK, Topagune eta EHEgaz oraintsu izenpetutako "Euskararen Ordua" deritxon adierazpen eta agiri publikoa. Aor bada be, "Euskararen Unibertsoa"

deritxonaren zuzendaritzan Ikastolen eskuhartze arteza. Aor, Elhuyar, Zabaltzen, Labayru, UEU, Eusko Ikaskuntza... eta holango erakunde pribatuakaz Ikastolek egindako hitzarmen eta alkarlanak. Aor, eraturako Jardunaldi Pedagogikoak.

Beste alde batetik, UGTek sortu, zabaldu eta gizartearen talde batzuk Ikastolei deutseen behinolako "gorroto historiko" dalako horrek bizirik dirau oraindikarren, aurki (irakurri "El Libro Negro del Euskera" - JM Torrealda). Negargarria da hori. Negargarriagoa da, oraindikarren, 10 edo 13 urteko neska-mutilak gorroto historiko horrek nahastuta egoten ikustea.

Ikastolek eta Eskola Publiko Euskaldunak **alkarlanean eta alkarrizketan** oinarritu behar dabez euron arteko hartuemonak. Lankidetzaz esparruak zabaldu behar dabez, kompetentzia alkar-neutralizatzailek sortu barik. Alkar osogarritasuna sortu behar dabe. Hezkuntzearen euskalduntzerako estrategia egokia eta itundua sortu be, alkar hurreratze sendoa eta iraunkorra lortu ahal izateko. Hau beharrezkoa da Euskal Herriko eraikuntza nazionalerako. "Herri eta Nazino bat izan gaitez, gure Irakaskuntza Sistema Berezkoa behar dogu. Berton eta bertorako, gure lehena kontutan hartuta, etorkizunari begira eraikitakoa. Ikastolen Mogimendu Nazionala eta euskeraz diharduan Eskola Publikoa doguz biharko Euskal Eskola Nazionalaren oinarriak eta zutabeak" (Tasio Erkizia, Euskaldunon Egunkaria, 98.05.31, 3. orr.)

Estrategia okerrik ez jako Eskola Publikoari komeni. Borroka frentistek Eskola Publiko Euskalduna lurperatuko dau-eta. Borroka frentista eta gorroto historikoa kalte-kalterako dira Eskola Publiko Euskaldunarentzako. Borondateak erakarri baino, uxatu egiten dabezalako. Eskola Publikoak beste irudi bat behar dau emon. Estrategia sustarretik aldatu behar da. Beste kultura bat beharrezkoa da orain: alkarlana eta alkarrizketea. Eskola Publiko Euskaldunak bizirik irautea gura izan ezkeron, beste solaskide batzuk behar dira. Solaskide baliagarriak eta positibistak, alkarlanaren kulturalen sinistuten dabenak, hatan be. Osterantzean, Eskola Publikoak bere burua galduko dau. Autosuntsiketea saihestu behar da. NO COMMENT!

Iniaki MARTIARTU

BERBETAN SAILEAN IBILALDIA-RI BURUZ ESANDAKOARI, XEHETASUN BATZUK.



Urteetan zehar euskara zaindu eta bultzatu dutenei esker, gure hizkuntzak bizirik irauten du. Apaizak eleizetan, maisu-andereño gurasoekin batera ikastoletan eta batez ere izengabeko hainbat eta hainbat pertsoneri, aurretiz, gure ezagupena. Orain urte batzuk Euskal Komunitate Autonomoan euskerazko hezkuntza emateko modu bakarra Ikastoletan aurkitzen genuen, baina gaur egun, Hegoaldeko hiru herrialdeetan behintzat, garrantzi haundiko aldakuntza ematen da. Hau da: **EUSKARAREN OFIZIALTASUNA**.

Euskal Eskola Publikoan "D" eredu indartsuena agertzen da "A" erderazko ereduaren kalterakoa.

Zoritxarrez Iparraldean eta Nafarroako leku batzutan gauzak ez dira berdin eta Ikastolak, Publikoaren laguntzaz, **OFIZIALTASUN** horren bila dabilta.

Guzti hau azaldu ta gero gure mezua inor baztertzen ez duen eskolaren alde da. Beraz, "ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK" aldarrikatzen dugunak ezin dugu **IKASTOLA PRIBATU** baten aldeko **IBILALDIA** apoiatu.

Bakioko Eskolako Guraso Elkartek

«Berton zure iragarkia argitaratu ahal izango dozu»

Asko ligatzen da udan, ala?



Juan Pedro Bilbao
Bai, baina nik gitxi.



Iker Martinez
Bai, neska politak etorten direlako.



Mari Asun Garai
Niri dinoste zu! Gazteek bai, udan gehiago. Jaietan Neguen baino gehiago. Baina nik ez dot ligatzen.



Iratxe Renteria
Ez. Danak motzak eta udatiarrak direlako.



Idoia Markaida
Bardin antzean. Ez da beharrezkoa uda ligatzeko.



Jabi Pines
Batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Udan neska gehiago datoz eta ondorioz, aukeratzeko gehiago dago.

Ondorioa: Eritxi ez bardinak aztertu ezker, ikusi daikegu ligatzeko orduan udatiarrak be badaukela euren eragina, batez be gazteengan. Halan da ze, udatiarrak alde batera itzita, gure artean ligatzen ikasi beharko geunke.

Balego ta balitz, alkarren ondoan dabilz.

EUTSI GOGOR MUNGIAKO ESKOLEARI ETA ERAKUTSI BAKIOTARREN BALIOA



Tira, heldu zitzaigun eguna.

Urtero bezala, ikasle, irakasle eta gurasoak batu ginen ekainaren 20an, 6. mailakoak agurtzeko.

Hamarretarako hasi ginen jolasaldia eta hainbat izerdi eman arren, pozik ibili ginen denok. Konturatu barik, eguerdia heldu zitzaigun eta berehala banandu

genizkien oparitxoak eskolatik alde egin behar duten neska-mutilei, aurretiaz berba batzuk esanez. Gurasoen «rollo txikia», animoz beterik zegoen, baina holan eta guzti, pena eta poza biak batera agertzen ziren euren aurpegietan.

Bestela, umeak ez zeuden txantxetan ibiltzeko, mahaiak pintxoz horniturik ikustean.

Eta holan sabela ondo betetuta, bukaera eman genion jai honi.

Oharra: Idazki hau dela eta, ematen zaigun aukera aprobetxatuz, eskolaren laguntzaile bereziei eskerrak eman nahi dizkiegu, orain arteko adoreaekin jarrai dezaten. ESKERRIK ASKO, MOISES, JON (txistularia), ALDANA, JORGE, BENINO eta beste hainbat pertsonari, sarritan esku bat botatzeko prest egoten direnei.

ESKOLAKO GURASO ELKARTEA



.....
BAKIOKO XII.



MUSIKA ASTEA - 1998

Daborduko hamabi urte pasatu dira Bakioko I. Musika Astea lehenengoz antolatu zanetik hona, eta, egia esan, urterik urte kalitate hobea eskaini eta kontzertuetara jende gehiago parejetzeaz aparte, esan behar da bakiotarrok geure-geurea sentzitzen dogun ekitaldia dala. Halan da ze, "Txirritxola" hau ezin zan argitaratu horren barri zehatza emon barik; hona hemen, bada, Udalak eta Bakioko Abesbatzak aurton be antolatutako musika aste zoragarri honen egitaraua, musika saioez noz gozatu behar dogun ahaztu ez dakigun:

Atzo San Joan, gaur joan zan.

GARAGARRILAK 13 (20:00) PARROKIAN

CAPILLA DE LAS "QUATRO IGLESIAS" - Pilar Pujol, Mezzosopranoa

GARAGARRILAK 14 (20:00) PARROKIAN

MAITE ARRUABARRENA-EUGENIO TOBALINA

GARAGARRILAK 15 (20:00) PARROKIAN

BILBOKO AKORDEOI ORKESTRA SINFONIKOA - Zuzendaria: Josu Loroño

GARAGARRILAK 16 (20:00) PARROKIAN

MOSKUKO KORDA LAUKOTEA

GARAGARRILAK 17 (20:00) PARROKIAN


EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ABESBATZA - Julen Ezkurra, Zuzendaria

GARAGARRILAK 18 (20:30) PARROKIAN

BILBOKO NAZIOARTEKO KANTU LIRIKO LEHIAKETAREN IRABAZLEEN GALA

GARAGARRILAK 19 (20:00) PARROKIAN

EUSKAL HERRIKO GAZTE ORKESTRA FUNDAZIOA - Zuzendaria: Juan Jose Mena



BABESLEAK: BAKIOKO UDALA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA HAINBAT ENPRESA ETA NORBANAKO

.....

TURISMO BULEGOKO BARRIAK



Uda ostera be ailegatu da gurera eta Bakioko Turismo Bulegoak daborduko ekin deutso sasoiari sasoiak diran ekitaldiak antolatzeari. Halan da ze, uda honetan be hiru urtekera egin doguz: lehenengoa, Donostiarako txangoa izango da eta bertan, besteak beste, Itziarreko Santutegia ikusi, Deba bisitatu

eta Getarian bazkaldu ostein, Donostiara joango gara barriztutako *Acuariuma* patxadaz ikuskatu, uria behar bez ezagutu eta alde zaharreko pintxoek gozatzeko; bestetik, abuztuan Nafarroako hegoaldea ezagutarazoteko egun bateko bidaiatxua egingo dogu (oraindikarren ez dogu egitaraua guztiz zehaztu); azkenik, irailean Bizkaiko txokorik ezezagunena, baina politenatariko bat ezagutzeko aukera edukiko dogu, hau da, Enkartzinoak. Guztiagaz be, zuon eritxiak jasoteko prest gagoz, edozelako iradokizuna egin gura izanez gero.

Beste alde batetik, aurtengo asmoak igazkoak baino apur bat gorago ipini doguz eta horretarako kultur eta astialdiko jardueren kopurua handitu ez eze, Kultur Etxeagaz batera ekintzez betetako eskaintza zabala be egingo dogu; beraz, horren barri zehatza emongo deusuegu herrian zabalduko dogun egitarauaren bitartez. Ganera, jaietan herritarren partaidetza bultzatzeko asmoa be badaukagu eta hori lortzeko arrakastatsua baina zoritxarrez galdu diran hainbat ekitaldi berreskuratzeko ahaleginak egingo doguz, berbarako, *goitibeheren* jaitziera, lagun-taldeen lehiaketa, eskulangintza azoka eta aitatu ez doguzan beste hainbat sorpresa be.

Beste barik, udaz ahalik eta gehien gozatzea opa deusuegu. Hurrengora arte.

**Taberna, denda, tailer zein beste
edozeinentzako iragarki lekua izango da hau.**

ESKU PELOTA TAILERRA

Apirilaren 21ean eta 28an, Kultur Etxean, esku pelotarako pelotea zelan egiten dan ikusi genduan. Partaideak: Alaitasuna Pilota Taldeko gazteak.

PELOTEA EGITEKO PAUSUAK:


- 1.- Harrikoa egiteko erabilten dogun gomazko esku-narrua hartu, ta zerrenda luze bakar eta estua ebagi.
- 2.- Zerrenda luzeagaz kixki edo pelotearen bihotza biribildu behar da.
- 3.- Eskunarru baten hatza-marretatik hiru eraztun ebagi.
- 4.- Kixkia eraztunekaz lotu eta estali, mugitu ez daiten.



- 5.- Kixkia artulegaz estali.
- 6.- Artulearen ganetik haria erabili, gogortasuna emoteko.
- 7.- Azkenik, trebea bazara, narruzko zerrenda bi josi kanpoaldetik, edo osterantzean, esparadrapoa erabili daikezu.



BAKIOKO ETXEEN TOPONIMIA LIBURUTXUA



Salgai dago! Zegan? 200 pta.-an. Merke-merke. Anjel Zelaieta idazlearen gidaritzapean AEKK igaz argitaratutako lan interesgarria dozue. Hantxe topauko dozuez Bakioko etxe guztien izenak eta beste jakingarri batzuk be. Gure herriko etxe guztietan egon behar dauan liburua dogu. Erostea merezi dau. Hori egin gura izan ezkeron, TURISMO BULEGO edo KULTUR ETXetik etortea baino ez daukazue.

Taberna, denda, tailer zein beste edozeinentzako iragarki lekua izango da hau.

BAKION

⊗ BIZKAIERA LANTZEN

⊗ EGA IKASTAROA

NOIZ:

UZTAILA ETA ABUZTUAN

IZENA EMON:
(I N S C R I P C I O N)

KULTUR - ETXEAN


A R R A T S A L D E Z

antolatzaile: bakioko aek
eta kultur etxea

- U D A L A R E N L A G U N T Z A Z -

XABIROIAK, HARETZAN OSTONDUTAKO BIZILAGUNAK

•• Aurton ehundaka ziztada kasu izan dira gure haretzetan ••



Hauxe dogu azken sasoian Euskal Herriko edozein haretzatan topatu daikegun egoera: arratsaldea pasatzen parajetu diran lagun bik, eguzkitan tartetxu bat egin ostean, uretara joatea erabagi dabe. Biak galapan abiatu dira eta saltoka sartu uretan. Halango baten, euretarike batek, "tak!", ziztada itzela igarri dau oinazpian. Beherantza aditu eta puntu gorri txiker bat besterik ikusi ez dauan lez, abiada hotsean segitu dau, oskola edo harri txingorra izan dalakoan. Dana dala, unetxu bat pasatu ostean, oinazpian gero eta min handiagoa sentitu dau eta, horregaitik, uretatik urteteko esan deutso lagunari. Azkenean, hain txikia dan holango zauririk ezin dauala horrebesteko minik emon esan arren, lagunaren keinuak ikusikeran, uretatik urtetea erabagi dabe. Handik ordu erdira, ostera, ziztadak jotako mutila minetan egonezinik dago eta ganera apur bat zorabiatuta. Halan da ze, Gurutze Gorriko egoitzara hurreratzea egokiena dala begitandu jake. Bertan zauria eta sintomak ikusi ta gero, xabiroi baten ziztada izan dala esan ostean, horrelako kasuetan hartu beharreko neurriei ekin deutsee.

Seguru asko, guzti-guztiok entzun edo jasan behar izan dogu antzeko egoeraren bat. Horregaitik, haretzadenboraldian sartu barri egon eta komunikabideei esker gure kostaldean ehundaka pertsonak xabiroien ziztadak jasan dabezana jakin izan dogunez gero, momentu aproposa da bisitari arriskutsu pittin horreek sortzen dabezan mina eta zauria zelan osatzen diran hobeto jakiteko. Hona hemen, bada, holakoetan zer egin ahal dogun:

ZER EGIN XABIROI BATEK ZIZTATUZ GERO?

- Ez egizu ezelan be torniketerik, ez eta ebagirik be ziztadaren inguruan.
- Ez egizu pozoina zurrut.
- Lehenengo-lehenengo, pozoina ondo kendu.
- Gero, bota egizu ur hotz-hotza oinaren ganean inguruko odol zirkulazinoa gitxitzeko.
- Ostean, bota egizu jasan daikezun urik beroena; horrela, pozoinaren proteinak desaktibatzea lortuko dozu.
- Azkenik, parajetu zaitetz osasun zentro batera analgesiko eta antihistaminikoetan oinarritutako tratamendua hartzeko.

**Ez ahaztu! Iragarkia imini daizun, TXIRRITXOLAK
lekutxu hau eskainiko deutsu.**



1.- Non dago hau?

2.- Emon urtea zenbakiz.

Erantzunak badakizuz, ekarri ahalik arinen KULTUR ETXera. Epea irailaren 12an amaituko jatzu.

Itzi zure izena eta tfno. zenbakia.

Erantzunak igarriko dabezanen artean hurrengo sari hau zotzetan egingo dogu:

Lagun birentzako afaria TXOBERNE tabernan

Aurrekoaren erantzun zuzena:

«Zumetzagako San Migel baseleizan»

Irabazlea: YERA ANGULO

Amen dozuez YERA ANGULO eta bere laguna TXOBERNE tabernan afaria mauka-mauka jaten.



TXOBERNE

Benta Alde, 148
48130 BAKIO

Berton-bertokoa gozatu teko
leku aproposa
Bakioko txakolina, sagardoa
eta jateko giro ezin hobia uan

Tfno.-zkoa.: 94 619 41 81

Eta Bakioko Abesbatzan zer?



Polito-polito ikasturtearen amaierara heldu bagara be, gure eginbehar guztiak ez dira amaitu. Garagarriko 13tik 19ra bitartean izango dan musika astean, ohi dogun lez, lagundu behar dogu. Datorren ikasturtea behar dan lez antolatu, mungiarraz batzartxuren bat edo beste egin, bien arteko lankidetzaz abestien bidez sendotzeko. Urteroko bazkaria eta txangoa prestatu, Andra Mari eguneko mezea,...

Herriko jaietan be, badogu kalera urteteko asmoa, bakiotar eta udatiar guztien belarrien gozamenerako. Udabarriko ekitaldietan maila ona erakutsi dogu. Arrakasta handia izan dabe ekitaldiok, bai antolaketaren aldetik, bai entzulegoarenetik be.

Oraingoan be, ezin dogu aitatu barik itzi abots gehiago geureganatu gura dogula. Gure ateak zabalik daukazuez. Musikazaletasuna eta entsaio ta ekitaldietara zintzo joateko konpromisoa besterik ez dogu eskatzen.

Bakioko Abesbatza

ALAITASUNA PILOTA TALDEA

Umeen eskolarteko txapelketen denboraldia amaitu den arren, Alaitasunakoek harik eta irailararte, sikan, badugu zereginik ondino. Txapelketak aipatu ditugunez gero, gura nahi ez, beti egiten dugu lorpenen balantze antzeko bat, txikia baino ez bada ere, guztiz pozgarria izan dela guretzat esan behar dugu. Ze, edade guztietakoak etorri zaizkigu, psikomotrizitatek hasita, aurrebenjamin, benjamin, alebin, eta infantil mailaraino, ta denak egoteko modua izan dugu. Emaitzak? Datorren urtean ikusi beharko ditugu, aurtan etorri diren umeek zein etorri ez direnek elkarregaz egoteko modurik badugu.

Honez gain, noizean behin beste ekintza batzuk egitekotan egoten gara, eta aspaldian ez dugu egun hoberik pasa igaro den ekainaren 7an pasatakoa baino. Alaitasunaren eguna ospatu genuen. Hasieran JATA inguruan burutzekotan egon baginen ere, eguraldi txarrak aldaerazi egin zigun hasierako egitaraua. Hau da, mendi ibilaldia JATAra izan beharrean, ZUMETZAGAKO San Migelera, mendi jolasak futbol zelaira eta gastronomia jardunaldia...ez dakigu, benetan umeak alaitu ote ziren, baina helduak...errementa beharrean.


Gaur lerro hauek idazten ari garenean, Urkitza Ikastetxeko Guraso Elkartearekin batera "San Juan Bezpera" egunari oratuko diogu, duda barik, iaz ta aurreneko urteetako emanaldiak ikusiz, beste saio eder baten aurrean



aurkituko gara. Aurrera, ba! Denon artean herri antza eman diezaiogun holako ekintzen bitartez, gaurkoan San Juanak ospatuz.

**Bakion, 1998.eko ekainak 23.
ALAITASUNA P.T.**

ITXAS-ALDEren BARRIAK



Udea aurre-aurrean daukagula-eta, ITXAS-ALDEkoei zereginak biderkatzen joakez. Maiatzean bertan, Busturialdeko Dantzari Txikien Jaian esku hartzeko Busturian izan ginan (azkenean, euriaren erruz, ezin izan genduan dantzarik egin). Baita Euskal Herriko Dantzari

Egunean (Sopuertan) eta Bizkaiko Dantzari Egunean (Santurtzin) be izan ginan. Beste alde batetik, ezkontza batzuetan dantzatzeko deituak izan gara, datozen hileetako egun batzuetan, bai Bakion eta bai beste herri batzuetan be.


Aurtengo Nazioarteko Folklore Erakustaldian, garagarriaren 30ean, atzerriko talde bi izango dira gure artean Bakion: «Maikan Sumaj» Rojas urikoa (Argentina) eta «Sakpate» Lome urikoa (Togo). Ganera, Euskal Herriko beste toki batzuetan dantzatzeko dira, egun horren inguruan. Honen truke 1999ko zezeilean, gu geu Rojasera joateko asmoa dogu. Nahiz eta atzerriko taldeak ekarte eta euren egotaldia Bakion antolatzea guretzat ahalegin handia izan, oso garrantzitsu eta guztiz aberasgarritzat jotzen dogu ekintza honetan jardutea.

Beste alde batetik, abuztuaren 15eko ekitaldiak prestatzen hasita gagoz, betiko lez, aurreko urteetakoak hobetzeko asmotan, ahal bada, eta dantza, koreografia, musika tresnak, jantziak eta abar barrituko doguzala. Egia esateko, ITXAS-ALDEko kideen asmo barriei esker, urtean-urteango barrikuntza honek lortzen doguz.

Azkenik, gogoratu gura deusuegu be, ITXAS-ALDEren 25 urteko historia kontatzen deuskun liburua gure artean dogula, eta eskuratu gura dozuena zapatuetan, goizeko 11etatik arratsaldeko 5etara entsaiatzen dogun tokietara etortea baino ez daukazuela.

ITXAS-ALDE

GoGoAk AsKaTu TaLdEaGaz



Iker, Aitor ta Gaizka

TX.: Nola sortu zen ideia hau ?

G.A.: Hasiera batean ez genuen uste aurrera aterako genuenik, esperantzarik ez genuelako. Denbora pasa ahala, dirua aurrezten hasi ginen, benetako musika talde bat sortzeko asmotan.

TX.: Zergaitik “G O G O A K ASKATU” ?

G.A.: Lehendabizi “Azken Garrasia” deitu genion taldeari. Denbora pasa eta gero, izena aldatu genion eta Gogoak Askaturekin gelditu zen, honek bere istorioa

G.A.: Momentuz, Goitisoloko “txabola” batean ensaiatzen dugu. Batzar batean egon gara udal-etxekeekin, baina ez dugu lokalik lortu.

TX.: Zenbat denboraz ensaiatzen duzue astero ?

G.A.: Bariku eta martitzeneko, ordu pare batez egun bakoitzeko.

TX.: Maketa bat ateraz gero, zein izango litzateke lehen kontzertua egiteko zuen tokirik gustukoena ?

G.A.: Txoberne Taberna izango litzatekeela uste dugu, gazte giro euskalduna dagoelako.

TX.: Edukiko al dugu inoiz zuek entzuteko aukerarik ?

G.A.: Bai, dirua aurreztu eta maketa ateratzen dugunean.

AGUR AMA ETA AITA

TXIRRITXOLA: Musika talde bat sortu duzuela entzun dugu. Egia al da ? Aurrera jarraitzekotan ?

GOGOAK ASKATU: Bai, oraingoz, musika talde hau aurrera atera nahi dugu.

TX.: Nortzuk hartzen duzue parte?

G.A.: Baxuan Iker Baraiazarrak, kitarran Aitor Bilbaok, kitarra eta ahotsa Gaizka Abiok eta bateria eta koroan Urtzi Mentxakatorrek.

b a i t a u k a ,
j a , j a , j a . . .
(barreak).

TX.: Zein musika mota da ?

G.A.: Ez zaigu “katalogatzea” gustatzen.

TX.: Ba al duzue ensaiatzeko lokalik ?



Aitor, Iker ta Gaizka

Hasiak, egina dirudi.

DONIENE SUA

«Gaur dala, bihar dala Doniene, etzi San Joan biharamone. Gure soloan lapurrik ez, badagoz be, erre beitez».



Atzo San Joan, gaur joan zan



Kaskoa dekona biztuena ei de!



Zertarako sokie ba? - dino Egoitzek.




Arrapetako makurtu behar de, mutilek!



Txistuan dago etorkizune.



Zuk zelan enfokeko zeunke?



Kadera edo tripeko kalanbrerik?



Eskolako iragarki mobilek (mugikorrak!) gose ei dire.



Goxo dagoz, gero!



Bai, bai! TXIRRITXOLAN agertu zara.



San Joan, jan-edanak joan



Emoitsezu egurre!




Jausi ezkeru, eperdidxe bero.



Nor jausiko da lehenengo sutieren ganien?
Jakin badakizu, deitu eiskuzu.



Sorginek, akelarrie, sutie...amaitu dire.
Hurrengoan be hanixe egongo gara!



San Joan, zelan etorri, halan joan.

«San Joan, San Joan bagilean, denbora ederrean gure soloan zaporik be ez, sugoerik be ez, dagozanak be erre beitez».

UEMA. Euskera huts-hutsez bizi gura daben herriak

UEMA, Udal Euskaldunen Mankomunitatea, 1992. urtean sortu zan eta 32 herri euskaldunek osotuten dabe gaur egun. Beraren helburua herri euskaldunetan bizitza osoa euskera huts-hutsez egitea da. Euskal Herrian ehundik gora udalerrri euskaldun egon arren, bakarrik Hegoaldeko 32 udalerrrik osotuten dabe, gaur egun, UEMA. Euren asmoa, baina, udalerrri euskaldun guzti-guztiak UEMA alkartean batutea da.

Euskal Herrian herri euskaldun-euskaldunak dagoz. Herri euskaldunotan, ostera, bizitzea euskera hutsean egiteko arazoak daukez, batetik zein bestetik oztupoak iminten deutseezalako. Halan bada, udalerrri horreen eskubideak jagoteko UEMA jaio zan. UEMAren helburu nagusia herri bakotxean euskereari bizitza sozialeko arlo guztietan ateak edegitea eta eurotan euskerea bera zabaldutea da: etxean, eskolan, udaletxean, osasun zerbitzuan, beharlekuan, herriko erakunde eta toki guztietan.

UEMAko udaletako behargin guztiak euskaldunak dira, herritarrakazko hartuemonak eta zerbitzuak euskeraz egin ahal izateko. Alde batetik, herriotako udalek euskerea barruko lan hizkuntza bihurtutea dabe helburu, % 100ean euskeraz funtzionetako asmoaz.

Beste alde batetik, euskerea herriotako beste arlo eta txoko guztietara zabaldu gura dabe. Hemen be, udaletan lez, % 100ean euskeraz bizitea da helburua. Oso garrantzitsua da euskeraz oso-osoa funtzionatuko daben guneak herri euskaldunetan sortutea. Euskereak behar dauz-eta gune euskaldun horreek, sare eta zerbitzu guztiz euskaldunakaz.

Udalerrian euskeraz funtzionatuteak, baina, ez dau inoren hizkuntza eskubiderik ukatuten. Ez dau esan gura euskeraz ez dakenak diskriminatuta egongo diranik. Euskaldunek euskeraz biziteko dauken eskubidea babestu eta jagon egingo dala baino, halantxe, herritar guztien integrazioa lortu gura dabe.

Hau guztiau udalaren kontua bakarrik ez da. Herritarrek proiektu horri oneritxia emoteaz gan, berorretan udalagaz batera hartu behar dabe esku. Herritarren implikazioa oinarritzkoa da-eta. Udalak herritarren eskuhartze hori bultzatu beharko leuke.

Euskera hutsean biziteko erabagia hartu daben udalerriek, ostera, hainbat eta hainbat oztupo daukez euren ibilbidean. Esate baterako, UEMAko udalek gorengo administrazioakaz (Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako



UEMA Eguna 96 Aramaion. Ekitaldi instituzionala.

Gobernua eta, batez be, Espainiako Administrazioa) daukezanak. Hareek ia informaziorik gehiena erderaz bialduten dabelako. Halandaze, administrazio horreek eurokaz euskeraz egin daiela eskatu dabe UEMAko udalek. Iparaldean egoerea, oraindikarren, askoz be txarragoa da.

UEMA sartu ahal izateko, udalerriko biztanleen %80ek, gitxienez, euskaldunak izan behar dabe. Baldintza hori beteten dauana udalerrri euskalduntzat hartuten da. Badagoz Euskal Herrian 110 herri inguru baldintza hori beteteko modukoak. Herriotan, guztira, 180.000 euskaldun bizi dira, apur gorabehera. Baina sano sakabanatuta dagoz herriok.

UEMAko udalerrri gehienak txikiak dira. Bermeo da handiena, ia 18.000 biztanle daukaz. Euskeraz bizi dan lurraldea edo lurgunea sortutea beharrezkoa da euskerearentzako. UEMAren helburua euskerearen lurraldea lortutea be bada. Horretarako, herri euskaldun guztiak UEMAren proiektuaren inguruan bateratutea behar-beharrezkoa da. Herri euskaldunen arteko alkarlana, batak



UEMA Eguna 96 Aramaion. Kaleko jaia eta giroa.



besteari lagunduteko, da bidea. Alkarregaz batukeran indar handiagoa eukiko dabe euren helburuak lortu ahal izateko. Daborduko, UEMA Hegoaldeko lau lurraldeetan zabaldua dago eta Iparraldeko udal batzuek hartuemonak hasita daukaz, etorkizunean bertan be zabalduko itxaropenaz.

Hona hemen, gaur egun, UEMAko kide diran herriak:

- Araba:** Aramaio.
- Bizkaia:** Artea, Aulesti, Bermeo, Dima, Etxebarria, Gamiz-Fika, Gasteiz, Gizaburuaga, Munitibar, Zeasuri.
- Gipuzkoa:** Aduna, Aizarnazabal, Altxaga, Altzo, Ba-

liarrain, Beizama, El-duaien, Gaintza, Ikaztegieta, Itsasondo, Leaburu-Txarama, Lizartza, Oiartzun, Orendain, Oresa, Usurbil, Zaldibia.

Nafarroa: Arantza, Goizueta, Leitza, Zubietza.

Esan behar da be, euskeraz funtzionetan daben udal guztiak ez dagozala UEMAn sartuta.

Euskerearen birreskurapenean herri euskaldunek gero ta erantzukizun handiagoa dauke. Bateko, eurotan dagoz gure arbasoen arnasea, ekologia, Euskal Herriko ohitura zaharrak, euskerearen jatortasuna...; mundu

sinbolikoa eta euskerearen kalitatea, azken baten, eurotan gordeten diralako. Eta besteko, euskereak, aurrera egiteko, lurraldea behar daualako. Herri horreek euskera bizi eta jatorraren jaube dira, eurotan euskerearen erabilera sustarustartuta dagoalako. Erabilerea bermatuteko gure hizkuntzan horren garrantzitsua dan agozkotasunari leku handia egin behar jako eta herri euskaldunetako euskaldunek bertako euskera jatorra eta bizia darabile, agozko euskerea. Herri euskaldunak, bada, Euskal Herriaren bihotza dira.

UEMAren ustez, herri euskaldunak euskerearen etorkizunerako leba handikoak dira eta, horregaitik, bizirik eutsi behar jake, herritarrek handik ospa ez daien egin. Horretarako, zerbitzuak, eskolea, etxebizitza eta kultura aukerak eurotan eskaini behar dira. Biziteko leku atsegin eta erakargarri bihurtu behar dira.

Aurton, Euskal Herri osorako kanpaina bi plazaratu dauz UEMAk. Lehenengoa, herri eta eskualde euskaldunetako Osasun Zerbitzua euskeraz be emoteko aldarrikatuten dauana, halan ospitaleetako zerbitzua be. Eta bigarrena, Euskal Herri osoan euskerearen ofizialtasuna eskatuten dauana.

UEMA alkarteak urtero eratuten dau egun bakarreko jaia. Aurton, Nafarroako Arantza herri euskaldunean izan da. Eta lehenengoz, han izan ziran Iparraldeko lau herritako alkateak, etorkizunaren ezaugarri!

Iniaki MARTIARTU



Arantza Nafarroan

Berbalapikoa

- aldarrikatu= iragarni
- alkarlan=alkarregaz egindako beharra
- baldintza=kondizino
- bermatu=garantizatu
- erantzukizun=ardura
- esku hartu=parte hartu
- ren jaube izan=euki
- osotu=egin
- sakabanatu=han-hor-hemen zabaldu
- sortu=jaiio
- udal=alkatea, zinegotziak eta herriko administrazioaren beharginak
- udaletxe=udalak dauan etxea edo egoitza
- udalerrri=udalaren agintepean dagoan lurraldea

TXINDORRA - BIRIGARROA

Arlo honetan, gure herrian egingo diran euskerearen aurkako erasoak salatuko doguz. Euskerearen aurka dabilzanei BIRIGARROA izena iminiko deusegu. Birigarroa izena beste euskalki batzuetan txar edo dongearen sinonimoa da eta.

Baina, txindorrak udabarrian poztasuna ekarten deuskun ezkerroan, euskerearen alde sendo egingo dauanari TXINDORRA izena esango deusegu. Euskal basoan poztasuna zabalduko deuskulako. Txindor asko batuko ahal jakuz!

BIRIGARROA

Oraingo honetan baina, BIRIGARROA esan behar deusegu.

Nori esan, baina?

Bada, BIZKAIBUS dalako autobus zerbitzu horri.

Zer dala-eta? Hara, bada.

Konturatu zaree inoiz Bentako geltokian txantelak salduteko dagoan txabolatxu haretan zer dagoan? Bai, gero?

Konturatu zaree han eskegita dagoan ia informazio guztia espainera huts eta bakarrean dagoana edota euskereari leku baragarria egiten deusena? Hizkuntza bietan, gitxienez, egon behar. Hori, be ez!



Bizkaibus

Konturatu zaree herriko beste geltokietan gauza bera daukaguna?

Ikusi dozue autobus bat edo batzuetan daroezan idazkunetan holangorik?: MUNGUIA-BAQUIO. Benetan negargarri besteko mingarria!

Autobus konpainia horretako beharginak (gidariak, txantel saltzaileak) euskaldunak dira? Baten bat, bai. Gehienek baina, euskeraz mutik be ez dakie.

Halandaze, BIZKAIBUS horrek, berak Bakio lako herri euskaldunean euskerea hain baztertua daukana ikusikeran, euskaldunen lepotik, gure lepotik barre egiten dauala begitanduten jaku. Gure eritxian, egoera baragarri hau arin be arin konpondu behar dabe. Eta halantxe eskatuten dogu.

Inork ez badau esandakoa sinistuten, aor argazkiok, bada!




Kanpo, eder.

Zaharrek Barri

Bidea, bai, baina zer gehiago? Ikusi daikegun lez, porturako bidea sano aldatu da. BELLAVISTAK baino ez dirau zutunik, eta baita ITXAS-ONDOK be, nahiz eta gaur egun leku honetatik bera ezin ikusi. Etxe barriak, zugatzak, argimutilak, hesiak..., orain danatarik dago, lehen hormi bi eta lau etxe baino ez egozan tokian. Izan be, Bakio ez da lehengoa.

Anartz ORMAZA



Hau zeure iragarkirako lekua izango da.

BAKIOKO EUSKEREAA-II

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun !

Oharra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi behar dan: “alabea”
- Bakion zelan esaten dan: “(alábie)”

Hona hemen euskeraz erabilten doguzan artikulua (ZER kasuan):

- a (bat) : odola, gizona, ura, adarra, babesa, taketa,...
- ak (batzuk): odolak, gizonak, urak, adarrak, babesak, taketak,...


Artikuluak berbearen (izena/adjetiboa) erroari atzean gehitzen jakoz:

berba-erroa: **gizon**

artikulua: -A (bat) / -AK (batzuk)

berba-erroa + artikulua: **gizon+A** / **gizon+AK**

Bakioko euskerea bizkaiera da. Bizkaierearen barruan hiru sistema dagoz: -EA / -IA / -IE izenekoak. Bakioko euskerea -IE sistemakoa da: (alábie). Sistema horren ezaugarriak



Bizkaierearen barruan
Bakioko -IE sistemearen
nagusitasuna

hurrengo honeexek dira:

(batentzako)

- a+a → -ea (-ie).....alaba+a → alabea (*alábie*)
- e+a → -ea (-ie).....ume+a → umea (*umíe*)
- i+a → -ia (-idxe).....txarri+a → txarria (*txarrídx*)
- o+a → -oa (-oa).....asto+a → astoa (*astóa*)
- u+a → -ua (-ue).....buru+a → burua (*burúe*)

(batzuentzako)

- a+ak → -ak (-ak).....alaba+ak → alabak (*alábak*)
- e+ak → -eak (-iek).....ume+ak → umeak (*umíek*)
- i+ak → -iak (-idxe).....txarri+ak → txarriak (*txarrídxek*)
- o+ak → -oak (-oak).....asto+ak → astoak (*astóak*)
- u+ak → -uak (-uek).....buru+ak → buruak (*burúek*)

Beste adibide batzuk:

- a + a → -ea: ezpata-*ezpatea* (*espátie*), berba-*berbea* (*berbíe*),...
- e + a → -ea: etxe-*etxea* (*etzíe*), seme-*semea* (*semíe*),...
- i + a → -ia: ogi-*ogia* (*ogídx*), euli-*eulia* (*eulídx*),...
- o + a → -oa: arto-*artoa* (*artóa*), baso-*basoa* (*basóa*),...
- u + a → -ua: esku-*eskua* (*eskúe*), erru-*errua* (*errúe*),...

Bakion lez, hurrengo herriotan be **-IE** sistema erabilten da:

Mañu-Meñaka-Fruiz-Arrieta-Errigoiti-Morga-Muxika-Gernika-Lumo-Ajangiz-Gautegiz-Arteaga-Ibarrangelu-Ea-Arratzu-Kortezubi-Ereño-Nabarniz-Mendata-Munitibar-Zornotza-Iurreta-Garai-Durango-Abadiño-Izurtza-Mañaria-Atxondo-Aramaio.

Iniaki MARTIARTU



BERMEOTARROK ESAN:

Bakidxo da herridxe,
herri baragarridxe.
Artogaz ogitegidxe,
lapagaz arategidxe.

BAKIOTARROK ERANTZUN:

Bermiotarra,
tirri-tarra.
Jan bedarra,
bota uzkerria.

TXETXU UGALDEgaz berbetan

Kazetaritzan hamaika pausu emondakoa da, Bakion erro sakonak daukazan Txetxu Ugalde Luzuriaga. Aita Garai baserrikoa dauka, orain dala 38 urte jaiotako kazetari ezagun honek, eta Bakiora egin dau bizileku bila berak be. Galdutako euskerea berreskuratzeko ahaleginetan dabilerarik, ea berandu barik ETB 1ean ikusteko aukera emoten deuskun...

Txirritxola: Zelan hasi zinan kazetaritzan ?

Txetxu Ugalde: Kazetaritza ikasketak burutu nebazan Leioan eta amaitu aurretik Deian hasi nintzan laguntzaile. Handik, behin ikasketak amaituta, Correora joan nintzan beharrera.

TX: Andaluzian beharrean ibili zinan, ezta ?

T.U.: Halan da bai. Marbellan aritu nintzan, bertako "La Tribuna de Marbella"- "The Marbella Tribune" egunkarian. Gaztelaraz eta ingelesez egiten zan, eta orohar oso esperientzia ona eta dibertigarria izan zan.

TX: Han dagoan beroak lan erritmoa motelduten ei dau...

T.U.: Tire, bertakoen erritmoa motela zan benetan, baina han genbiltzan euskaldun eta ingelesena bestelakoa zan, alde nabaria egoan horretan, baina giroa atsegina zan era berean.

TX: Marbellatik Madrilera egin zenduan jauzia.


T.U.: Marca kirol-egunkarian jardun neban urte bi t'erdiz, eta esan behar dot bertan hazi nintzala

kazetari, gisa. Esperientzia izugarria izan zan, han biltzen baita kazetarion "fauna" nagusia. Jose Ramón De La Morena, José María García eta beste asko ezagutzeko parada euki neban. Esan leike Espainia aldean geuk falta dogun lotsabakotasun puntu hori daukela, baina era batera, harroak, handikiak, eta lehen aitaturako bien kasuan lankideekiko oso zatarrak dira. Esango neuke hemengoak bildurti samarrak garala eta bestalde autozentsura larregi dagoala. Inork artez esan barik, oso ondo dakigu zer ez dogun esan behar bada- ez bada be.

TX: Handik EITBra jo zenduan.

T.U.: Bada, bai, informatiboetan ibili nintzan, kiroletan...Oso sasoi polita izan zan. Batez be, Euskal futbolarentzako urte sano onak izan eta egundoko giroa egoalako Erreala eta Athleticen artean, jokalaria zein zaletuen arteko harreman berezia...Neuretzat Erreala beti izango da Athleticen ostean, talderik estimatuena. Lastimea da gerora zaletuen artean giroa zelan zakartu dan ikustea.

TX: Azkenik, telebistan




Yolanda Alzola eta Txetxu Ugalde

aurkezle, informatiboetan, eguraldi-gizon...

T.U.: Danetik. Mezea emotea falta dot bakarrik, baina ez dot esperantzarik galdu. Dana dala, oso gustora nabil, bereziki eguraldiaren saioagaz. Andoni Aizpuru, Jon Albisu eta hirurok osatzen dogu taldea, informazioa eskatu, idatzi, ondo prestatu eta bota. Benetan behar interesgarria da.

TX: Lo que faltabarako informazioa, nondik ataraten dozue, bada ?

T.U.: Saioaren zuzendariak aukeratzen dauz gaiak, informazioa geure bitartekoak erabilia biltzen dogu, edota,



kanpooka danetan, ajentziei erosi beharra egoten da.

Gaur egun, kate biotako lehenak gara audientziari dagokionez. Uste dot kakoa saioaren arintasun eta freskotasunean datzala, jendeari, tarte batez, arazoak eta larritasunak ahazteko aukera emotean...

TX: Beste telebista-kate batzuek alderratuta, kalitate onekoa ete da EITB ?

T.U.: Uste dot oso produktu duina egiten dala, darabilgun aurrekontua zein dan kontuan hartuta. Hemen erredaktore batek barria editatzen dau (euskeraz eta erderaz), irudiak eta ahotsa montatu eta azkenik, iragarri egiten dauz. Hemendik kanpo, Espainiako kateetan, aitatutako behar bakoitzaz lagun bat arduratzen da.

ITSUMUSTUAN


Saiorik gustukoena: ETB va de cine, Bertatik-bertara.
Jateko: Indabak sakramentu guztiekaz.
Edateko: Txakolina edo Errioxako ardaoa.
Filme bat: Tiburón.

Antzezle bana: Gene Hackman, Katherine Hepburn.
Uri bat: Bilbo.
Hizkuntza bat: Euskera.

IRAGARKIEN SALNEURRIAK

orrialdea (mm.)	4 ale	3 ale	ale 2 / ale 1	OHARRA: Inork TXIRRITXOLA n iragarkiren bat imini gura badau, arrastietan 5etatik 9etara, telefono zenbaki honetara deitutea baino ez dauka: 94 619 33 69 (Kultur Etxea).
osoa (290 x 205)	10.000	8.000	6.000	
erdia (205 x 140)	5.000	4.000	3.000	
laurdena (140 x 100)	3.000	2.500	2.000	
8rena (100 x 65)	2.000	1.600	1.200	
16rena (65 x 50)	1.500	1.200	1.000	
32rena (50 x 35)	1.000	800	600	

Antxon Irusta Ipuin Kontalarria



KONTRABANDISTA

Honako gizon hau kontrabandista horreetarik bat zan. Eta beste askori gertatzen jaken moduan, gizon hau kontrabandista zana jakin, danak ekien: herrikoek, poliziak, inguruan bizi edo ebulan guztiek baekien edo susmoa baeuken -noz edo noz entzunda gitxienez- gizon honen ofizioaren barri. Baina inortxuk ez eban sekula lortu lantegi horretan harrapatzerik, ezta urrutitik be.

Askotan pasatzen eban India eta Pakistanen arteko muga asto ganean jesarrita eta makina bat bider


harrapatu eban poliziak, baina inoiz ez eutsoen ezer topatzen.

Kontrabandista ezaguna zan, ikuste hutsagaz batera susmoak sortzen ebazana eta gizon nabarmena, baina frogarik ezin, ba, topatu, eta gizona milaka bider pasa zen Indiatik Pakistanera eta Pakistandik Indiarra asto ganean.

Halan, urteak joan ziran eta honeri be, generako ofizioetako moduan erretiroa hartzeko ordua ailegatu jakon. Eta Indiako herrixka batera joan zan zahartzaro lasaiaren bila.

Egun batean herrixka hartan, aspaldian gizon hau ezagututako polizia bat pasatzea egokitu zan eta ezagutu egin eban Indiako mugako kontrabandistarik, edo ustezko kontrabandistarik ospetsuena. Ezagutu eban asto ganean sarri-sarri muga pasatzen eban kontrabandista pikarora eta berbabidea emon eutson:

- Txo! Zu ez zara nigaz gogoratuko beharbada, baina ni Pakistango mugan askotan ikusi zindudazan. Izan be, ni orain erretiratuta nago, baina polizia izana naz





eta ez deustazu txarto hartuko, esaten badeutsut bagenkiala kontrabandoan ibiltzen zinana. Baina, beti euki dogu zer ekarten zenduan jakiteko gogo. Orain, erretiratuta zagoz eta ni be bai; beraz, mesedetxu bat eskatu gura deustut, jakingura asetzeagaitik behintzat. Esango deustazu zer ekarten zenduan kontrabandoan?

Eta bestearen erantzuna:

ASTOAK.

Antxon Irusta

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA

Bagilak ez dau emoten liburuak irakurtzeko hilabete aproposa danik. Selektibitatea dala eta, institutuko edo unibertsitateko azterketak, liburuak lagun baino, etsai bihurtu dira. Halan eta guztiz ere, badagoz azterketaren sindromea kentzeko liburuak.

Jon Arretxeren «**Ostegunak**» liburuak, adibidez, ikasleen giroa umorez aurkezten dau. «...ostegunekoa da ikasle horiek as-teburuan etxera itzuli aurretik bertan pasatzen duten azken gaua eta zuku guztia atera nahiko diote, denak kalera atera eta hantxe hasten dira poteoa, parranda, ligatzeko ahaleginak eta bestelako erokeriak...».

«Zer da Obsexuen Kluba?, galdetuko duzue; edo, beharbada eta lehenago: zer da obsexu bat? Ba, obsexu bat, ia izenetik bertatik asma litekeen bezala, egun osoan sexuaz pentsatzen ari den norbait da, sexuaz

obsesionatutakoa...» «**Obsexuen Kluba**» deritxon liburuan, Xabier Mendiguren erantzuten dau sexuari buruz jakin gura zenduan baina galdetzen ausartu ez zinen guztia.

Uda bidaiak egiteko garaia ei da. Liburuek debalde bidaiatzeko ilusioa ekarten deuskue. Adibidez, Koldo Izagirrereren fikzioa: «**Ez duk erraza, konpai!**». Liburu honetan Kuba osoa daukazu bilduta.


Ez fikzioa: «**Pirineoak: 1000 igoera. Gavarnietik Bielsara (bide arruntak eta eskalada errazak)**».

Euskerearen altxorraren giltzak ANJEL LERTXUNDIren eskutik jasoko doguz «**Letrak kalekantoitik**» bere liburuan aurkezten dauan bezala hitzen ibilerak, esapideen abenturak, esaeren sekretuak topa daikeguz. Hona hemen adibide bat: «**L: Listoen hutsa, tontoen algara.**



Justo Mokoroak Manuel Rekalderi entzuna: «Ez balute listoek egiten hutsik, ez lukete tontoek egingo irrik»

Eta, azkenean, udari begira garagarrian hasiko dan umeentzako **Liburutegiko katuen irakurketa lehiaketan** parte hartzeko animatu zaiteze.



1997ko idaz-lehiaketan 15 eta 18 urteen artekoan aitamena

jaso eban ipuina. Egilea: Lide Madariaga

EGUNON AUZOKIDE HORI!!

Iparraldean dut neure osotasuna, baina beste hiru puntu kardinalak ere ditut kide. Neguan laino ugari gainean badut ere, ez dut hotzik somatzen, txikia naizen arren, bihotz sendoa dut eta. Udan eguzkiak berotzen du nire azala, goizeko zazpiak aldean itzartzen nau ekialdea bustiz; eguerdirako hegoaldea jotzen du eta arratsaldeko azken orduetan agurtzen nau ipar-mendebaldean ezkututuz.

Hau dut ezaugarri bitxia, neure tenperatura. Epeltasun honi esker landaretza berezi bati ematen diot hazteko aukera. Ingurualdean arraroa bada ere, olibondoak gordetzen ditut azalean; elikagai gisa kalak ematen ditut, patata antzeko landareak, eta arruntagoak diren pikondoak ere ditut nabari.

Irailean tirabirak izaten ditut itsasoarekin, olatu gogorrek azala urratzen didate, baina bere boterea inorenaren gainetik dago, eta, gero eta txikiago bihurtu arren, ezin diezaioket aurre egin.

Haizea dut benetako laguna, azkura dudanean atzazalen lana betetzen du eta beraren txistuak sekulako lasaitasuna sortarazten dit.

Nire semeak untxiak dira, neu naiz haien ama. Sendia osatzen dugu, beraiek gabe ez naiz ezer, arima zati bat falta dut. Antzina ehundaka ziren, ondo igarotzen genuen elkarrekin, ondo konpontzen ginen denok. Orain, noizean behin baino



ez dauzkat inguruan, noizean behin baino ez naute babesten. Bisitatxo hau dut gogokoen. Neure edertasuna orduantxe ematen dut ezagutzera, nire izpiritua argia kanpora irteten da, luzaroan amataturik egon ondoren.

Seme guztiak nirekin ez badaude ere, ez dut bakardade handirik sentitzen, nire ezkerraldera, urteko urtaro guztietan laguntzen nauen oso kide ona daukat. Laguna denez gero, *Juantxu* deitzen diot; gure harremana belaunaldiz belaunaldi dator.

Goizero-goizero *egunonak* ematen dizkiogu elkarrri, egun berri bati hasiera emanez eta jarraian itsasoaren aldartea aztertzen dugu.

Elkarrizketa luzeak izaten ditugu, eguna atsegina da eta laburragoa egiten dute elkarrizketek.

Gauetz izarrak ditut gainean, ilargia da hauen irakaslea eta ikasleak beraiek; argitasuna itsasoaren ur lasaietan islatzen dute, ikuskizun majiko bati leku eginez.

Argitasun honekin jokatzeko dute arrainek, uretatik kanpo salto eginez.

Batzuetan, izarrek inoiz baino distira handiagoa dutenean, antzinako paisaje hura dator kit burura. Natura baino ez zen ingurune honetako protagonista, errepideak ez zuen menditxoak zeharkatzen eta are eta nabariagoa den *Juantxu* gainean eraikitako ermita ez zegoen artean.

Dena den eta egia esan, baseliza horri esker bisita mordo jasozen dugu eta ez gaitu horrek gutxi harrotzen, ez pentsa.

Oraintsu izarrek ahal duten beste distira guztia sortzen hasi dira, gabonak gainean ditugu eta; hau da izarrek poztasuna erakusteko duten arrazoi nagusienetarikoa bat. Argitasun honek kutsu berezi bat sortzen du giro honetan eta lagungarri bihurtzen da Olentzerok Euskal Herria zeharkatzeko orduan.

Nork daki, aurtengo Olentzerok untxitxo maiteak itzularaziko dizkit.

AKETXE

MARIO, ZURETZAT...

Joan zinan, bai,
eta oraindik
hemen zagoz
ez gaituzu bakarrik itxi...
Sarritan, irribarreak
gure ezpanetan
zure presentzia
adierazten dau.
Irribarretsu zagoz
gure gogoan, eta
gure egunak alaituten dozuz.
Joan zinan, bai,
eta oraindik
hemen zagoz.

Iratze O.I.

San Joan zelan etorri, halan joan.

Soinkien Laniztea

Behinola baten, beste asko lez, soineko begiak, besoak, oinak, bihotzak eta kirioak, sabel alperregaz hasarratu ziran, beharrik ez ebalako egiten edo.

Marmarka alkarren artean esaten ei eben:

- Sabel alper hori, bai ederto bizi dala! Hor barruan bero-berotan dago, jan ta lo besterik ez. Guk, ostera, hemen gau ta egun beharrean dihardugu, sabel alper horri jaten emoteko. Zertarako gura dogu artean holako alperzar hori?

Begiek esan eben:

- Gu, hemen gagoz bekoki erdian, beti zuhur, gorputzaren jagole ta gidari. Eta sabela beti lo-alperkerietan?

Ez holangorik!!

Besoek esan eben:

- Gu, soloa nahi lantokian, atxurra eta mailua eskuetan beti beharrean, sabel alper horrentzat irabazi daigun?

Ez holangorik!!

Oinek esan eben:

- Gu, errotako asto zaharra baino itoago, gorputz astuna gure ganean alde batetik bestera ezin eroanez, eta bien bitartean, sabel nagia nasai eta zabal alperkeria hutsean?

Ez holangorik!!

Bihotzak esan eban:

- Ni, gau ta egun, ekin ta ekin, odola gorputz guztira beti bialduten eta sabela, arbi-lorea baino alperregago?

Ez holangorik!!

Kirioek esan eben:

- Guk, soin guztian zehar, argindar harien antzera, gorputz atal guztiei indarra emoten eta sabel alperzar horrek behar tutik egin ez?

Ez holangorik!!

Eta begiek, besoek, oinek, bihotzak eta kirioek, danak alkar hartuta, beharrik ez egitea erabagi eben.

Baina, zer jazo zan?

Gorputz osoa, apurka-apurka, argalduten, makalduten eta indarrak galduten hasi zala.

Besondoa

Begiek ezin ikusi. Besoek behar egiteko indarrak ez. Oinak makalfasunez ezin ibili. Bihotzak ezin odolik emon. Kirioek soinkiak ezin erabili... Handik lasterrera, gorputz osoa hilteko arriskuan egon zan.

Besagina


Orduan bai ezagutu ebela, begiek, besoek, oinek, kirioek eta bihotzak, sabela ez zana uste eben besteko alperra. Sabelak, han barruan, isilean, janariak txegosten eta onduten gorputz osoaren onerako behar ederra egiten ebana.

Handik aurrera, lagun onak izan ziran eta ipuin mamintsu hau amaitu da.

Hori holan bazan,
ez bazan,
ez niri esan.

(GIZA-SOINA liburutik)

Iniaki MARTIARTU
1996ko irailean



BERBALAPIKOA

soinki = gorputzaren atal edo zati

lanizte = greba

soin = gorputz

kirio = nerbio

sabel = urdail

marmarka = txur-txurka, agopean
txutxumutxuka

jardun = egiten egon, aritu, eragon

nagi = alper, zabar

argindar hari = kable

atal = zati, zatiki

alkar hartuta = guztiak batera, ago batez,
eritxi batera

txegosi = jana sabelean eio, lixiritu

ondu = guritu, umotu, gozatu, eratu. (jakiak)

Ezer barri danik ez dozue esaten:
«zaharra danak gogaitu egiten dau»

Hara, ba!

Orduan bizi izaten zan.

Orduan maitatu egiten zan.

Orduan matxinadea isiotuteko dei egiten zan.

Orduan ume gaiso batez arduratu egiten zan.

Orduan Eskubideen eta Askatasunaren alde guda bat galdu zan.

Orduan norbera zahartu egiten zan,
hil egiten zan.

BETI DOIÑU BARDINEAN

Arean da, orain geuretzat

bizi izatea, maitatutea,

gure buruak asaldatutea,

itxaropenak izatea,

arduratan egotea,

zahartutea,

hiltea,

betiko alperreko bihurtu dira.

Hau guztiau ez da gehiago barririk izango.

Horrek gogaitu egiten zauez-eta,

zuek hildakoak.

Erich FRIED


DATOZANAK

Euskal Herria bizirik dago egon. Aor, osterantzean, datozen hiru hilotan eukiko dogun eskeintza zabala:


Pastorala, abuztuaren 9an, Barkoxen.
Musikaldia, abuztuaren zehar, Donostian.
Aste Nagusia, abuztuaren 15etik 23ra, Bilbon.
San Jon Dolozak, abuztuaren 28tik 31ra, Bakion.
Getxoko Folk Jaialdia, abuztuaren 31n, Getxon.

Olarizuko Erromeria, irailaren 8an, Gasteizen.
Getxoko Folk Jaialdia, irailaren 2tik 6ra, Getxon.
Zarautzko Euskal Jaia, irailaren 9an, Zarautzen.
Bermeoko Jaiak, irailaren 12tik 20ra, Bermeon.
Trebiño Eguna, irailaren 13an, Argoten.
San Migel Jaia, irailaren 29an, Zumetzagan.

Kilometroak, urriaren 4an, Tolosaldean.
Lapurtarren Biltzarra, urriaren 4an, Ustaritzen.
Muxikoen Eguna, urriaren 11an, Arrangoitzen.
Nafarroa Oinez, urriaren 18an, Zangotzan.
Gernikako Urriko Astelehenak, urriaren zehar, Gernikan.



BARREGAIAK




GAIXORIK


Behinola baten, Mikel gaixorik egoan etxean eta osagilea joan jakon ikustera.

- Mikel, zelan zagoz? -itaundu eutson osagileak.
- Ondoezik nago.
- Badaukazu minik, ala? -osagileak.
- Bai.
- Esaistazu bada, non daukazu mina -osagileak.
- Hori nik ez deutsut esan behar. Zu zeu zara osagilea eta zeuk igarri behar dozu!

KALERA BOTA

- Txo, baina, orain ez dozu lehengo tokian behar egiten, ala? -itaundu eutson lagun batek besteari.
- Ez, egia esateko, gogoko ez jatan gauza bat egin eusten.
- Zer egin eutsuen, bada?
- Kalera bota!





Gaztelu honetako dorre bakotxak leiho bat baino ez dauka. Printzesak bere leihotik burua ataraten dauanean, eskoialdean zaldunen dorrea ikusten dau eta pare-parean erregearen dorrea, baina ezin dau neskame eta morroien dorreko leihoa ikusi. Zein da printzesaren dorrea?


EZETZ JAKIN!



Joseba eta Jonen izozkiak margo bardinekoak dira. Xabierren izozkia ertz baten dago eta Iñakirena bestean. Izozki bat lar dago. Zein da?



PICANYOL



Hemengo kutxa honeetan zerak dagoz: ahate bat, hartz bat, oilo bat, tximino bat eta girgilu bat. Girgilua eta ahatea zenbaki bikoitia daben kutxetan dagoz. Hartza eta tximinoa zenbaki bikoitia daben kutxetan dagoz. Hartza dauan kutxea atarako bagendu, girgiluaren kutxea jausiko litzake. Oiloa dauan kutxea atarako bagendu, tximinoaren kutxea jausiko litzake. Ze kutxatan dago piztia bakotxa?



ATZERA BEGIRA

Aor bada, bost morrosko! 1931. urteko Sanjolasetan Bakioko haretzan zeinek arinago egin gurean, Birjilanda atzean dabela. Arin egin, bai. Baina zelan, gero, zakuan sartuta egon ezkerroan? Bada, honeek kikildu bapez eta aurrera ekin eutsoen arineketeari. Ezin izan dogu jakin, baina, zaku-lasterketea nork irabazi eban. Baietz lasterketea ikusteko han batu ziranek barretan behea jo. Handik urte gitxira, zoritxarrez, guda madarikatura joan behar izan eben bostok.

Ezkerretatik hasita:

Peli Garai Ormaza - Luzio Ikazuriagagoitia Laka - Juan San Jorge Iturain - Jesus Elorriaga Fernandez - Luzio Imatz Goitia